



## Pello Urkiolaren liburuko bertsoen azalpenak ematea eskatu du Udalak

**LEITZA** ▶ Herenegun egindako bilkuran onartu zen mozioa, Aralarren aldeko 5 bozkekin

**ESKAERA** ▶ Nafarroako eta Leitzako UPNri zuzenketa publikoa egitea eskatu dio Leitzako Udalak ▶ 6

### AMEZKETA ▶

Herri programa aurkeztu du ezker abertzaleak

Amezqueta eta Euskal Herria ezkerretik eraikitzeko asmoz ▶ 4

### ALDABA ▶



E. MAIZ

Santurik gabeko aldarearen historia

San Migel elizaren kristalezko aldaretik Aralar ikusten da ▶ 7



## Aldaketa klimatikoa aztertu dute bertsoen bidez

**TOLOSA** ▶ Naturaldia jardunaldien baitan, *Naturaldia bertsoz bertso* ekitaldiaren txanda izan zen herenegun. Hala, astean zehar hainbat adituk Kultur Etxean hitzaldien bidez egin duten

bezala, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegi bertsolariek aldaketa klimatikoaren gaia jorratu zuten Zerkausian bertsoen bidez. ASIER IMAZ ▶ 4



AUTODETERMINAZIOAZ aldaketa garaia  
**EUSKAL HERRIA  
GORRIRA**

Maiatzak 1 • 12:00etan  
manifestazioa Triangulotik

**LAB**

## TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

## Zer diozu Pello Urkiolaren 'Nere hitze bertsoatan' liburuari buruz?

Lotsa da hitza. Baina ezin da gehiago espero analfabetoa den, gazteleraz ez dakien, eta UPNkoa den (dakien hizkuntza bakarraren aurka lanean) bategandik.

KURAIJA ▶

Leitzar batzuk identifikatuta sentitzen direla esango dute li-

buru egile honekin, baina gehiengo, oso gehiengo, ez. Librea da nahi dena idaztea esaten da: aplikatu dezatela, beraz, denekin berdin (galdetu diezaiotela De Juanari, adibide askoren artean bat).

- ▶

Hobe pertsonaia honen ta bere lanan ingurun deus ez esatea. Bere pixukin eroriko da.

MIKEL ▶

Lotsagarria gizon honek argitaratu duena! Franco goraiatzeari ez al da ba, *apologia del terrorismo* delako hori?

- ▶

## GUTUN@K ▶

## Zein da helburua?

Zer dela eta Berazubi auzoan eman den aparkalekuen berregituraketa? Egia esan, galderra honen erantzuna ezagutu gabe geratuko garela iruditzen zait. Aldaketa bapatekoa izan da, egun batetik bestera; berehala agertu dira marra urdinak errepedean eta are azkarrago ipini dituzte parkimetroak. Hori bai, auzo honetan egoera lotsagarrian dau den errepede zatiak ez dituzte azken urteotan konpondu. Auzoaren zirkulazioa Tolosako pe-

riferiara eraman nahi dute, eta ia ezinezkoa da ordaindu gabeko gunerik aurkitzea. Beraz, urtero kobratzen diguten zirkulazio zergaz gain beste gastu bat gehitu behar da orain sistematikoki, TAO delakoa. Tolosako udalak aparkatzeko zegoen arazoari konponbidea ezarri nahi izan zion, dudarik gabe, haien proiektuak bultzatuko zituen diru sarrerak lortuko zituztelako. Hala izan da, zerkausia berri da eta hainbat ekintza berri antolatzen hasi dira. Orain egun batzuk lortu berri dute sari bat ere, ondare historikoaren kon-

tserbazio saria hain zuzen ere, pentsa!

Nahikoa da alkate jauna, nahikoa da gutxi batzuen interesak defendatzeaz. Bada garaia herritarron ekonomia aintzakotzat hartzeko, ez du inongo zentzurik aparkaleku guztiak TAO sistema bidezkoak izatea, are eta gutxiago Tolosako erdigunetik urruntzen garen heinean.

Hauteskunde kanpainen Tolosak izandako lorpen eta aurrerapen handiak aipatuko dizkigute, baina errealitatea oso bestelakoa dela argi dago.

ALEX ADURRIAGA ▶ TOLOSA

## IRUDI ZAHARRA ▶



## Bedaioko baserrien argazki zaharrak, Artubi elkartearen eskegita

**Nerea Urbizu** ▶ Larrañeta, irudian Gurbila Txiki... Bedaioko hainbat baserriren argazki zaharrak ikus daitezke Artubi elkartearen Tolosaldeko auzorik urrundenetako den leku baketsu hau ezagutzera hurbiltzen den edozeinek, paraje ederrez go-

zatzeaz gain, bedaiotarrek beraiek ezagutuko ez dituzten baserrien argazkiak ere ikus ditzakete, duela 50 urteko irudiak baitaude, beste askoren artean. Gutxi badira ere, badakite biztanleek txoko eder honi zukua ateratzen. ARTUBI ELKARTEA

### HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**EZBAIAN** ▶ Etzi izango da Maiatzaren Lehena, hau da, Langilearen Nazioarteko Eguna. Sindikatuek, urtero gertatzen den bezala, langileen lan baldintzak hobetzeko aldarriak plazaratzen dituzte. LAB eta ELA sindikatuena bildu ditugu

MARI MUJIKA (LAB SINDIKATUA) ▶

## Autodeterminazioaz aldaketa garaia

**E**uskal Herriak bizi duen abagunean ikusita, aurtengo Maiatzaren Lehenaren, langilearen gehiengoak nahi eta behar duen benetako aldaketa politiko eta soziala adarrikatzeko, konpromiso eta mobilizatorako eguna izan behar du inoiz baino gehiago.

Aldaketak bake eta konponbide demokratikora eraman behar gaitu behin betikoz. Horretarako, elkarrizketa eta negoziazio prozesuak akordio politikoa ahalbidetu eta era berean akordioak marko demokratikoa bermatu beharko du. Marko horretan, Euskal Herria errespetatu eta bere herritarren borondate politikoa oinarrituta trantsizioa gertatu beharko da proiektu politiko guztiak bide politiko eta demokratikoetatik gauzatu ahal izan daitezkeen. Autodeterminazio eskubidea aitortzea da gatazka konponbiderako oinarriko bitartekoa. Horregatik, LABek eskubide honen defentsan hartutako konpromisoa berretsi nahi du eta borroka hori euskal langileria guztira zabaltzera ere konprometitzen da; autodeterminazio eskubidearen aldeko konpromisoa piztu eta gure herriarena den eskubidea exijitzeko orduan indarrak biltzeko.

RAMON IRAZU (ELA SINDIKATUA) ▶

## Langilea naiz eta harro nago

**Z**aharra berri esan beharko genuke 2007ko Maiatzaren Lehena iritsi den honetan. Ez daukagu motibo handirik kontent egoteko, inondik ere; langileok alegia. Zeren gure kontura poltsikoak ederki asko betetzen ari direnak, horiek bai, oso gustura daude, bai horixe. *Ekonomia* ondo dihoakie beraiei.

Aldiz ezin esan, bere egoera kaxkarra aldatzeko langile klaseak aspalditik daraman borroka honetan, ezer asko aurreratu duenik azken urte hauetan. Ez Patronalaren aurrean, ez Administrazioaren aurrean. Alderantziz esan beharko genuke. Ekonomia eta Lan Merkaturan bultzatu dituzten aldaketak gure kaltetarako izan dira, gure indar ahalmena ahultzeko. Prekaritatea, azpikontratazioa, etengabe lan istripuak, eremu publikoaren pribatizazioa... Horiexek dira gaur egungo egoeraren ezaugarriak.

Eta arazo larri hauei aurre egiteko elkarrizketa edo pakto soziala deritzen den horrek ezer gutxi balio duela, aspalditxo frogatuta dago. Sindikatu espainolak, Gobernuak eta CEOek gauzatzen dituzten akordioak, konpondu ezezik okertu egiten dituzte langile jendearen lan baldintzak. Eta azkenekoa adibide bezala. Iaz CCOOek eta UGTk babestu eta sinatu zuten Lan Erreformak langileak kaleratzeko kalte ordaina merketu egin zuen, behin behineko-

Euskal langileriak behar beharrezkoa du aldaketa, eredu neoliberalaren efektuei aurre egiteko dien lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua eraikitzeko eta ezkerreko eredu sozial alternatibo baten aldeko bidea jorratzeko. Batetik, egungo administrazioen politika ekonomiko eta batera sozialak ez direnak ezberdintasun sozialak areagotzen eta lan eskubideak urratzen jarraitzen dutelako.

Bestetik, politika publikoek kapitalaren interesekin bat egiten dutelako oinarriko eskubideak hondatzeko; esaterako, enpleguaren kalitatea, babes soziala, osasuna, etxebizitza eta ingurumena arloetan. Egungero entzuten ditugun, *hazkunde ekonomiko* eta *enpresen mozkiak* berba hipokritek langabezia dauden edo baldintza kaskarretan lan egiten duten 400.000 pertsona; generoagatiko ezberdintasunak, mota guztietako bazterkeriak, esplotatutako gazteria eta ezbehar-tasa kezka garria ezkututzen dute.

Aldaketa gauzatu ahal izateko behar-beharrezkoa da, langileriak aktiboki parte hartzea; protagonismoa hartzea. Aldaketa gauzatzeko norbanakoaren konpro-

misoa eta militantzia eta kolektiboarena ezinbestekoa dira; baita, jendartean zein lantokietan elkartasunez landutako hurbileko aldarrikapenen aldeko eguneroko borroka ere. Borroka hori emakume eta gizonen arteko berdintasun eta parekidesunean oinarritutako gure jendarte ereduaren islatu behar da, kontsumista ez den ereduaren, ingurugiroaren aldeko ereduaren.

Horrez gain, gastu soziala murriztearen eta zerbitzu publikoak pribatizatzearen kontra gaudela, eskastutako ongizatea deusestearen eta kapitalaren interes pribatu konkretuei erantzuten dien makroproiektuak bultzatzen dituen garraio ereduaren aurka gaudela agertzeko ere bali behar du borroka horrek.

LABek aldarrikapen hauen guztien defentsan Maiatzaren Lehenean kalera ateratzera eta mobilizatza deitzen du euskal langileria. Sindikatuak *Autodeterminazioaz aldaketa garaia*. *Euskal Herria gorrira* lemapean Euskal Herriko eskualde guztietan deitutako manifestazioetan parte hartzeko konpromisoa eskatzen dizue.

Gora Maiatzaren Lehena!

esango nuke: Konfrontatzeko, gogoa ezezik bitartekoak ezinbestekoak dira. Eta batez ere grebari ondo eutsi ahal izateko, behar beharrezkoa suertatzen ari da azken urte hauetan, erresistentzi kutxa. LABek ez dauka horrelakorik. Eta gabezia horrek baldintzatzen du bere estrategia negoziatio kolektiboan, goitik beheraino. Horregatik ikusten dugu Komisionesekin hitzarmenak sinatzen, horregatik ez du baztertzen hitzarmenak minorian sinatzea, ELAk elkarlana posible egiteko eskatu zion bezala.

Berriro diot, indar metaketa gauzatzea behar beharrezkoa egiten zaigu. Langile-riaren egoerari buelta eman nahi baldin badiogu. Baina horretarako bakoitzak bere etxeko lanak egin beharko ditu lehen bailehen, zeren negoziatio kolektiboan batzuen gabeziak ezin ditzaizkete baldintzatu langileoi ezinbestekoa zaigun konfrontazio estrategia.

Gora Maiatzaren Lehena!

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak, *Zeuk idatzi* atalean. Zure datuak ere sartzera komeni da. ▶

### ESANA ▶



ABRAHAM OLANO  
TXIRRINDULARIA

«Indarraz gain, GPSarekin ondo moldatzea oso garrantzitsua izango da»

«Orain ezetz esaten dugu, baina gure burua aurreko postuetan ikusten badugu seguru lehiari sartzen saiatuko gara!»

«Horrenbeste ordu bizikletan ibiltzeko zuhaitzik eta ezer berezirik ikusi gabe biztara kalte egingo digu. Faktore psikologikoa garrantzitsua da»

«Polita litzateke New Yorkeko maratoian Armstrong eta Ullritxekin bat egitea. Ni ez nintzateke atzera botako»

Aldaketa 16

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

**Zerbitzaria.** Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 635 74 52 91 edo 943 69 43 13 telefono zenbakietara.

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. Deitu 699 13 45 86 zenbakira.

**Harreragileak.** Udaltxeetarako. Deitu 943 44 48 66 zenbakira.

#### SALGAI

**Trikitixa.** Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuak deitu 669 67 36 49 telefono zenbakira.

AZOKA >

**Apaingarriko landareen eskaintza izugarria**

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso loretsua suertatu zen. Lore eta landareen azoka berezia zela eta, ekizileek egundoko eskaintza ekarri zuten azokara, eta honetan ikusgarri agerian berdura plaza. Apaingarriko lore asko, kolorea sortia ederra, arize kolektuko ikusgarria, aromatika asko eta lore sorta ederrak. Zerkusian ere zehrenda ez zen makala izan. Biarritz berrien artean, babak, illarrak, patatak edota aza berriak izan ziren. Meguko espezie batzuk ere oraindik aukeran dauzkagu, porrua edo eta azelga, esaterako. Berreleko zehrenda ere ez zen makala izan atzokan. Ziza asko, 100 kilo baino gehiago, eta eguraldiak laguntzen bada, dituen azatearako ekizlozen ona espero dugu.

**ATZOKO AZOKA >**

	merk.	gare.
Beguna	120	-
Itxar arabola	2,50	-
Labea	4,50	-
Gresako Alegria	4	-
Hortentza	12	-
Saboa	1	1,20

Bertako produktak		
Ziza	30	65
Emoz sagara	0,60	8
Itxaurra	2,50	4
Tolosako Babaruna	8	12
Takera	1	1,25
Parru	1	10
Arsaultzak	1,10	2,40

Produktu ekologikak		
Itxaurra	4	6
Amaza	1,90	2
Emozleba	1,60	-
Aza	2,50	3



TOLOSA > KULTURA

**Klima aldaketaren gaia, bertsoz bertso, Naturaldian**

Angel Mari Peñagarrikanok, Andoni Egañak, Sustrai Colinak eta Aitor Sarriegik eguraldi txarrari aurre egin zioten Zerkusian, bertso doinu eta jokuekin

ASIER IMAZ

Aspalditxoan zientifikoak/inun nahi badakute zila/petrolioak bukatzeaz da/daude desente etekin/alternatibak egin dezake/gure aitona ikusita/ta energia gaia badago/ximaurretatik hasita Energia berrien inguruan galdetu zioten Angel Mari Peñagarrikanori herenegun Zerkusian, Tolosa Naturaldian bertsoz bertso ekialdean barnean eta honako bertso hau kantatu zuen. Gesto Naturak antolatu eta Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta Tolosa Udalak babesturiko natur jardunaldiaren azken sorrerako ekialdia izan zen bertso saioa. Azkena maiatzaren 23an izango da udaldebako batzar aretoan. Jokim Beldarratz Tolosako alkateak aurkezturik, Xavier Caño, Klima Aldaketako Euskal Bulegoko koordinatzaileak hitzaldia eskainiko du. Klima Aldaketaren aurka borrokatzeko Euskadiko estrategia gultzat harturik.



Bertsolariak eta gai jarzaila Angel Mari Peñagarrikanoren bertsoa entzuten herenegun Zerkusian. A. IMAZ

Zerkusian 90 bat lagun elkartu ziren Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarrikanok, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegiren saioa ikustera. 20.00etan hasi zen ekialdia, eta aste gutxi zehar egon diren hitzaldien laburpena eskaini zuten antolazaleek lehenik pantaila haundietan. 10 minutu irauan zuten laburpenak eta ondoren bertsolarien txanda iritsi zen. Momentuan ari zuten euri jusa atxikitzat hartuta klima aldaketaren inguruan kantatu zituzten agurrak. Ondoren,

Unai Elizaskuk arlo ezberdinetako gaiek plazaratu zituzten bertsolariak, jende asko ez bazen elkartu ere saioa entzuzera, aipatu behar da 6 telebista karrera baino gehiago aurkitzen zirela herenegun Zerkusian plazaan.

AMEZKETA > POLITIKA

**Ezker abertzaleak herri programa aurkeztu du, «herria eta Euskal Herria ezkerretik eraiki asmoz»**

A. IMAZ

Herenegun ezker abertzaleak herri programa aurkeztu zuen Badator udaberria/Badator Euskal Herria/Badator Amozketa berria/leloaren. 50 lagun inguru elkartu ziren ezkerretik eraiki nahi duten proiektuaren inguruan «bai Amezketa eta baita Euskal Herria ere ezkerretik eraiki nahi baitugu».



50 lagun inguru elkartu ziren herri programaren aurkezpenean. IMAZ

Herri programa hauteskundeak begira egina badago ere, argi utzi nahi izan zuten Amezketako ezker abertzaleak, udalaren egon nahiz ez, herri-rako ditugun ilusio, asmo eta amets horiek bete ahal izateko ahal dugun gutzia egiten saiatuko garela. Bide hori herrian zehar egindako galdetoketaren hasi zutela adierazi zuten.

**Tolosako etxe batean barneko langile bezala lan egiteko amakumea behar da**  
Tel.: 677 591 621

ANOETA >

**Bilera egingo dute herriko festen inguruan**

Festa batzordeak delialdia egiten die herriko elkarte eta herriar gutziak maiatzaren San, 19.00etan, udalarekin egingo den bilera parte hartzeraz. Festetako egitarari azken ukituak emango dituzte eta festetako kartela aukeratzeko dute kartel lehaketan aurkeztutako lanaren artean.

IBARRA >

**09:00etan izango da meza etzi, Izaskunen**

Maiatzaren 1ean 09:00etan izango da meza Izaskunen. Bestalde, maiatzaren zehar, aste gutxi 06:45ean izango da meza, eta igandetan, bertz. 11:00etan.

TOLOSA >

**Kirolaren inguruko hitzaldia maiatzaren 10ean**

Tolosako Udako Kirol Departamentuak Ez gure primerakoak izango kirola egiterakoan izenburua duen hitzaldia antolatu du NABO 2007, berditasunerako gurea programako Sentsibilizazioa eta pertsonalitate altaketa proiektuaren barruan. Saioa maiatzaren 10ean izango da udalako batzar aretoan 19:00etatik aurrera. Tolosaldeko parteekin egindako ikerketaren aurkezpena egingo dute lehendabizi eta araua, pilota eta aroto futbolako esperientziaren inguruan mahai inguru izango da ondoren. Izena ematea maiatzaren 8a baino lehen egin behar da 943 69 74 95 zenbakian edo kirolak@tolosako-udala.net helbidean.

TOLOSA >

**Padel eta squash txapelketak antolatu dituzte**

Padel eta squashesko txapelketak antolatu dituzte aurtien ere San Joan jaiek dirala eta. Padeleko bigarren txapelketa izango da eta squashesko bertz. 17.a izena ematea Usabai kiroldegian edo 943 53 64 00 zenbakian egin ahaliko da.

LIZARTZA > POLITIKA

**Aitor Agirrebarrena preso politikoaren senide bati bisita egitea ukatu dio espetxe zuzendaritzak**

A. IMAZ

Aitor Agirrebarrena lizartzarren sendiak, «otzopako» izan zituen atzo Normandian (Frantzia) preso politiko bati bisita egiteko. Espetxe zuzendaritzak Agirrebarrenaren sendi-kide bati ez zion bainekin eman bisitara sartzeko, nahiz eta abenduan egin bisitan auzorik ez izan sendi-kide berarekin. Honen ondorioz, goizeko 2 orduko bisitan bi pertsona bakarrik sartu ziren, beste biak kanpoan geratu. «Gertatutako jakin zuean, arratsaldean denok sartu eza-

an inor ez sartzeko esan zigun Aitorreki. Bertz ere ahal eginduko arren, ezazkoa eman zuela jakinarazi du sendiak. Gertatuta honen inguruan preso politiko izatzenaren gertaldia hasi du eta honen ondorioz, «Mitartera sartu dutela inkomunikaturik jakin dugu. eman edo kartzelatan dute.

Gutxienez 10 egun egoteaz gain mailen bidez funtzionatzen duenez kartzelak, orain artean zituen eskubide apurak galduta eta behetako mailatik hasi beharko du bertso ere. Maila hauek, eskubide edo telefonoa erabiltzeko eskubidea eman edo kartzelatan dute.

## LEITZA ▶

## Irurtzungo Txapelketan 2 garaipen lortu ditu Aurrerak

N. GARZIA

Irurtzungo Txapelketan atzo Aurrerako pilotariek hiru norgehiagoka jokatu zituzten. Mikel Sagastibeltza Egues eta Anartz Olano izan ziren goiztiarrenak eta 5 tantorengatik irabazi zieten Izkue eta Garaiori (18-13). Mikel Hernandorenak Irurtzungo Carrasco pilotariarekin jokatu zuen eta hauek ere emaitza bera lortu zuten Txorrait eta Juan de Abaurre pilotarien aurka. Azkenik, Jon Jaunarenak Irurtzungo Txapelketan ere binaka jokatu zuen, Irurtzungo Zabaleta pilotariarekin eta hauek bi tantorengatik galdu egin zuten.

Gaur, berriz, Etxaurin Ibai Gilek eta Jon Iparragirrek jokatu behar zuten partida bertan behera gelditu da, aurkariak azaldu ez direlako.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

**Besterik.**

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

## LEITZA ▶ POLITIKA

## Pello Urkiolaren liburua, bilkuran eztabaidagai

Liburuan idatzitako bertsoen azalpenak eta zuzenketa publikoa eskatzeko mozioa onartu du Leitzako Udalak



Pello Urkiola bere idatzia irakurtzen. n.g.



Larrain Herri Plataformako kideak. n.g.

## NAIARA GARZIA

Ostiral gauean osoko bilkuran Pello Urkiolak idatzi duen *Nere hitze bertsoetan* liburuaren harira Udalak aurkeztu zuen mozioa onartu egin zuten. Mozio

honek liburu horretan idatzitako bertsoen azalpenak eta zuzenketa publikoa eskatzea zuen helburu. Aralarko 5 kideak alde agertu ziren, UPNko 4 zinegotziak aurka, eta EAkoak abstentitu egin ziren.

Mozioa onartzearekin batera, Leitzako eta Nafarroako UPNri azalpenak eta zuzenketa publikoa egiteko eskatu zitzaizen eta bestalde, idatzia UPNko exekutiboari helaraztea exijitu.

Alkateak, Patxi Saenzek, «liburuaren argitalpenak lekuz kanpoko eztabaida» sortu duela salatu zuen, eta «herriaren irudiari batere onik» ez diola egiten. «Herriaren irudia hobetzea lortu dugu eta horrelako gauzek ez diote batere onik egiten».

Gero, erantzun moduan, Pello Urkiolak idatzi bat irakurri zuen, erderaz. «UPN kontu honetan sartzeari dagokionez, liburuaren izenburuak dioten bezala (*Nere hitze bertsoetan*), bertako idatziek nik baino beste inork ez duela zerikusirik argi dago».

Mozioaren inguruko bozketa iritsi zenean, UPNko 4 zinegotziek aurka bozkatu zuten, Aralarko 5 zinegotziek alde eta EAko 2 zinegotziak abstentitu egin ziren.

## Eztabaida

Alkateak, Patxi Saenzek, hauetskundeak hurbil daudela eta UPNk «erabili» egin dituztela esan zuen. Larrain Herri Plataformako Eleni Zabaletak ere txanda iritsi zitzaionean bere iritzia eman zuen. «Norberak pentsatzeko eta idazteko askatasun pertsonala oinarritzkoa da, bakoitzak nahi duena idatz dezake, baina niri okerrera iruditzen zaidana Nafarroako Hizkuntza Politikako Zuzendariak, esan zuena da. Liburuak erosi eta eskoletara zabaltzea, alegia. Hori onartezina da. Eskoletan balio batzuk bultzatzen ari gara, eta zer eta horrelako liburu bat eskoletara banatuko dutela esatea...».

Mozioa onartu arren, eztabaida luzatu egin zen, UPNko zinegotzi eta herritarren parte-hartzeak izan zirela eta.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

## 2007. urteko Zaldi Eguna antolatzeko Aurrera Perra Taldea lanean ari da

Ekainaren 30ean egingo dute eta jendea bikoiztea espero dute

## N. GARZIA

Zaldi Eguna ekainaren 30ean ospatuko da aurten Leitza eta gauza guztiak antolatzeko jada Aurrera Perra Taldea lanean ari da.

Pakito Sagastibeltza antolatzaileetako bat da. «Aurten jendea bikoizteko asmoa dugu, eta horretarako publizitatea luze eta zabal egingo dugu».

2007. urteko Zaldi Eguna ospatzeko 2 hilabete eskas falta

direnean, ekitaldi nagusiak zehaztuta dauzkate. «Goizeko 10:00etan Inguruartearen hasiko gara, eta bertan 13:00 inguru arte egongo gara. Zaldiekin ariketa ezberdinak egingo ditugu, oztupoak jarritz, jende arruntarentzat moduko heziera...».

13:00ak aldera festa herrira ekarriko dute, eta plazan erakustaldiak egingo dituzte. «14:30ak aldera bazkaria egingo dugu. Kanpotar batzuek pa-

ella erraldoi bat egingo dute, Bazkaria karrapean egingo dugu, eta alde zurretik txartelak salduko ditugu. Bazkarira joateko astebete lehenago baino lehenago izena eman behar da».

Arratsaldean festak Inguruartearen jarraituko du, eta heziera mota ezberdinen erakustaldi egingo dute bertan: naturala, western erakoa... 2 hilabete falta diren arren, Aurrera Perra Taldeko kideek egi-



Zaldi Eguna, lehenengo urtean. J.A.

taraua antolatua dute eta Sagastibeltzak azaldu duen bezala, «orain ikuskizunak banaka lotu behar ditugu».

ALDABA ▶ GIZARTEA

# Santurik gabeko aldarea

San Migel elizak kanpotik begiratuta ez du elizaren itxurarik; modernoa bezain gaztea den elizak aldarea kristalezkoa du. Bertatik Aralar mendikatea ikusten da

ENERITZ MAIZ

Tolosako Aldaba auzoa 350 metrora dago, Intxurre mendiaren magalean. Parez pare, Aralarko mendikatea du Txindoki mendiaren tontorra nagusi delarik. Bertako eliza gaztea bezain modernoa izatean, bista hauek badute bere eragina.

Oraingo elizaren aurretik bazen beste bat, baina 1953. urte inguruan, auzora joateko bidea zabaltearekin batera etorri ziren arazoak. Eraikin guztiak bota eta berriak egin behar izan zituzten. Inguruko herrietan dauden elizei begiratu gero, oso ezberdina da Aldabakoa. 50 urte besterik ez dituen elizak, kanpotik duen itxuragatik ez du eliza denik ere ematen.

Perez San Roman arkitektoak hala eskatuta, eraikinaren hiru paretak blokez eginak daude eta kanpo aldetik pinta-tu gabe dago. Aldarea den alde guztia kristalezkoa du eta barrutik kanpora dena ikus daite-



Eliza barrura sartu eta aldarera begira eserita jarri ostean Aralarko mendikatea ikus daiteke. ENERITZ MAIZ

ke. Horma hori, eliza guztietan santuz josia egoten bada ere, Aldabakoa ez du kristala besterik. Eskuin horman, San Migel mantendu dute, eta ezker aldean, Ama Birjina. Gainerantzean oso arrunta da barrutik, zuriz margotua.

Berezitasun hau dela eta, jende askok aukeratu izan du euren ezkontzak, jaunartzeak edota bataioak ospatzeko; baita, zilarrezko eta urrezko ezteiak egiteko ere. Maria Kruz Urangak gogoratzen du, «ia jende guztia ezkontzen zen garaietan, hasi udaberrietik eta udazkenera bitarte, larunbat askotan bi eta hiru ezkontza ere izaten ziren. Gehiegizkoa izaten zen udaberrian eta udazkenean. Orain ere izaten dira baina askoz ere lasaiago».

Urtean urteko ezkontzak hartzen dituzte eta aurtengorako ere jada baditu hartuak. Aldiz, jaunartze eta bataioetan, jauna urte batzuk arte kanpotarrenak onartzen bazituzten ere, gaur egun, bertako seme-alaben bataioak eta jaunartzeak besterik ez dira ospatzen.

Bestalde, Inazio Larrañaga auzoko seme zena, Txinan ibili zen, eta bertan Pingliang-eko Gotzain Kaputxino izendatu zuen. 1975. urtean Hondarribian hil zen eta Aldabako elizaren aldare azpian lurperatu dago.

LUZIO AROZENA ETA MARIA KRUZ URANGA ▶ ALDABA AUZOKO BIZILAGUNAK

## «Berealdiko pitzatuak atera zitzaizkion elizari eta bota egin zuten»

Luzio Arozena eta Maria Kruz Uranga Aldaba auzoan bizi dira. Duela berrogeita hamar urte egindako eliza modernoa-ren gaineko xehetasunak kontatu dizkigute.

**Nolatan egin zen honelako eliza modernoa Aldaban?**

**Luzio Arozena.** Eliza berria egitearen istorioa bidearengatik hasi zen. Lasarte tabernaraino bide berria egina zegoen eta plazaraino iristeko zati txiki bat baino ez zen falta. Galdi bidea besterik ez zen eta zati hori egingo bazen, malkarrari pusketan bat kendu behar izan zitzaien. Harriak kendu ondorenean, euri asko egin zuen eta lurra goitik behera mugitzen hasi zen. Berealdiko pitzatuak atera zitzaizkion elizari eta arriskuarengatik bota egin behar izan zituzten eliza, erretoe etxea eta pilotalekua.

**Beraz, plaza inguru guztia bota zuten?**

**Maria Kruz Uranga.** Bai, segituan hasi behar zela lanean eta hala hasi ginen. Garai hartan, Jose Iradi apaiza zegoen hemen eta hark esan zuen gauza guztiak egiteko aprotxatu behar zela, gainerantzean ezer gabe geratuko zela auzoa. Han eta hemen ate joka hasi zen dena aurrera eramateko. Eta aurrera eliza egiten hasi ziren.

**L. A.** Lehenengo zaharrak kendu eta ondoren berriak egitea, auzolanean egin zen. Eliza, erretoe etxea eta pilotalekua egin genituen eta material guztia apaizak ekarri zuen. Eskola ere bertan egitea komeni zela esaten zuen apaizak eta hori ere egin genuen.

**Orduan apaizak lan handia egin zuen, ezta?**

**M. K. U.** Bai lan handia egin zuen. Argia baguenen baina oso argi txikia zen, oso gutxi ikusten genuen eta ez dakit



E. MAIZ

nondik, baina linea guztiak berriak jartzea lortu zuen. Urarekin ere miserian ibiltzen ginen; batek iturria irekitzen bazuen bestearekin ez zitzaion iristen. Honetarako ere, behar zen material guztia lortu zuen eta egin beharreko guztia auzolanean egin genuen. Benetan lan handia egin zuen Aldabarengatik. Bera mugitu ez bazen, gaur, seguru asko hemen ez zen ezer ere egongo.

**Apaizak erabaki zuen orain-go eliza horrela egitea?**

**M. K. U.** Ez, Jose Iradi apaizak Perez San Roman arkitektoa lagun zuen eta hona etorri eta inguru hauek ikusi zituenean, segituan esan zuen bista horiek aprobetxatu beharra zuela.

**L. A.** Lehenko elizaren aldarea beste aldera begira zegoen eta honek erabaki zuen Aralar aldera begira jartzea eta dena

kristalezkoa izatea. Lehenko eliza, honen aldean ia bikoitza zen, hau da, beste herrietan dauden elizen parekoa zen. Gaurko elizaren lekuan erretoe etxea zegoen.

**Aldarea kristalezkoa izatean ez zen jendea kexatu?**

**M. K. U.** Inork ez zuen trabarik jarri. Gauza eliza egitea zen eta ez zuen inporta nolakoa izango zen. Denak konforme geratu ziren elizarekin.

**Eliza ezagutzen ez duen jendeari, kanpoko itxura dela eta ez zaio eliza denik irudituko?**

**M. K. U.** Bai hala da. Sarritan, taberna ondoan dagoen base-rietara joateko bidetik abiatu izan dira. Ongi jantzita ikustean badakigu elizaren bila dabilzala eta esan egin behar izaten diegu zein den eliza, ez dute horrelakorik espero.

**Igandero ematen da meza?**

**M. K. U.** Bai. Igandero izaten da meza baina, hilean behin, apaizak Santa Marinara joan behar izaten du meza ematera eta orduan, bertako hiru emakumeen artean egiten dugu elizkizuna. Asun Zubeldia, Maria Dolores Zabala eta ni aritzen gara. Garbiketez eta ezkontzetako prestaketez ere gu arduratzen gara. ◀






eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko 77 gizarte eragile



Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailera.** Jon Mujika. **Publizitate.** 661 678818. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Vilabona-Aitz.** 687 410022. vilabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaidea.** 687 410022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leitzaldea.** 687 410118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Kaztegieta, Inura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko apirilaren 29a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **15** hotzena **12**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zabalzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

**902 82 02 01**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkarteak antolatuta, Dantza Gala, 12:00etan Leidor aretoan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Puente hacia Terabithia* filma, 17:00etan, eta *300* filma 19:30ean Leidorren.

**Tolosa.** Bihar, ikuslearen eguna, *300* filma izango da ikusgai, 20:30ean Leidor aretoan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.  
**Goizeta.** Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**Bihar**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Ollarrea, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Hitzak* hegana (errepikapena).  
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Laskoraingo ikasleak HITZAn izan dira**

**TOLOSA ▶** Laskoraingo DBH 4ko ikasleek, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO erredakzioa bisitatu zuten pasa den astean. Beraiek ere Gaztelaniako ikasgaien erreportaiak landu dituzte, eta gauza berriak ikasteko aukera izan zuten horrela. Gelan teoria eman ondoren gertutik ezagutu ahal izan zuten nola egiten den lan egunkari batean, eta zerbait idazteko aukera ere izan zuten. Oso gustura aritu ziren, eta beraien esanetan, «oso esperientzia polita izan da eta berriro ere errepikatzea asko gustatuko litzaiguke». Bederatzi ikasle hauek, ordubetez kazetari bihurtzeko parada polita izan zuten, beraz. ESTI EZEIZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Maria Arrieta Etxeberria**  
 (Tolosa). Gaur 3 urte. Bihotzez etbeokoa.



**URTE ASKOAN**  
**Jokin Urdanpilleta (Trumbo).**  
 Dagoneko 27 urte? Ondu pasa ta muxu handi bat amona ta etbeokoa partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Ekaitz Goikoetxea (Tolosa).**  
 Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Irati Reguero Otamendi.**  
 Bihar ebeko sorginak 14 urte. Zorionak etbeokoa partetik

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.  
 Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tarte

Jaia Laia eta berriaren eskutik  
**Fermin Muguruzak** prestatutako musika bilduma bikaina

**'Musika Munduko Jolastokian'**

EUSKAL HERRIA. J. Perez. Flanery eta bere estakokak  
 JAMAICA. Goshko Miley Booker with Top Mohai. Smokin' island of song  
 EUSKAL HERRIA. Iñaki Muguruzak. Ju. Ju  
 LINESPOOL. The Beatles songs. All you need is love  
 KUBA. Ludo Maria Nivola. Travesía mágica  
 HEGODAFINIA. Ladysmeth Book. Mambao. Gift of the tortoise  
 NEW ORLEANS. Buchaveza Zuloaga. Oso oho boogaloo  
 MEXICO. Los Lobos with Lolo Guerrero. Pápa's boom

Maiatzaren 5etik aurrera larunbatera disko bat kioskoan + 5,30 €

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

**ingeniaritza imh** **IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

ingeniaritza izan eta amara postuetan aritu  
 berriaren praktika egin

ate irekiak maiatzaren 5ean goizeko 11:30ean ... zator IMH Ingeniaritza Eskola ezagutzera

zure txanda!

ikasten ala lanean? Kasi eta gainera lan egiten dila

Informazioa:  
 IMH INGENIARITZA ESKOLA  
 Azkue Azkue, 1  
 20600 EL GOIRIKAR, GIPUZKOA  
 Tel: 943 744 132  
 E-mail: ingeniaritza@imh.es  
 www.imh.es

cesii **Francisco G333 Ingeniaritza Taldea**